

Zortzi domina etxera

Arcelus, Ayala, Amiano, Lopez, Karrera, Ongay, Garmendia eta Luque judokentzat ▶ 3



Harpidedunei banatua ▶ Asteartea ▶ 2006-03-21 ▶ IV. urtea ▶ 842. zenbakia ▶ www.tolosaldekohitza.info

Jose Luis Geresta 'Ttotto' omendu dute herrikideek

ZIZURKIL ▶ Atzo bete ziren zazpi urte Oreretan hilik aurkitu zutela; azken bi egunotan gogoratu dute

EKITALDIAK ▶ Igandean, mendi martxa, omenaldia eta bazkaria; atzo, lore eskaintza hilerrian ▶ 4



Dantzarien saioa, Zizurkil Goian, Ttotto-ren oroigarriaren aurrean. HITZA



J. ASTIBIA

Manuel Lasarteren bertsoekin kantari

LEITZA ▶ Manuel Lasarteren bizimoduaz eta bertsoegintzaz jabetzeko parada izan dute leitzarrek haren inguruko hitzaldi-kantaldian ▶ 7

TOLOSA ▶

Puntu bakarra Tolosak Getxorekin

Hutsna berdindu arren, «betiko erara» bueltatu dira urdinak ▶ 2

LEITZA ▶

Argentinan, 101 urte bete dituen leitzarra

Mikaela Alduntzini omena egin diote Ayacucho Euskal Zentroan ▶ 7

LEITZA ▶

Herri Krosa antolatzeko laguntza eske

Aurrera Kirol Elkarteak bilerara deitu du bihar ▶ 7

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶

Rekondo eta Otaño laugarren kanporaketara sailkatu dira

Urrezko Aizkolarien Txapelketan Barberenari irabazita, asteburuko ezustekorik handiena eman du leitzarrek ▶ 6



FUTBOLA ▶

ERREDAKZIOA

Getxo taldea hartu zuen Tolosak, iragan larunbatean. Berazubiko zelaian jokaturako neurketan. Eguraldiak laguntzen bazuen ere ez zen zaletu gehiegi hurbildu harmaila-tara; bertaratuak, gainera, «burumakur eta aspertuta» bueltatu ziren etxera. Azken emaitza, 0 eta 0; puntu bakarra, beraz, urdintzat. Ez etxekoek ez eta bisitariek ere, ez zuten joko onegia burutu, eta gol aukera gutxi ikusi ahal izan ziren berdegunean. Hala eta guztiz ere, Tolosako entrenatzaile Jose Manuel Luluaga «gustura» azaldu zen bere mutilak egindako lanarekin; izan ere, «aurreko bolada txararren ondoren, lehengo erara bueltatu gara». Defentsan fin aritu ziren tolosarrak eta «erasoan izan zituzten arazo gehiago».

Hiru partida jarraian galdu ostean, «puntuatzea oso garrantzitsua» zen eta «garaipenaren bila» irten baziren ere, puntu hori «beharrezkoa» zela baieztatu du Luluagak. Partidako positiboena, bada, «joko ona» berreskuratu izana da. Lau partidetan zehar ez dituzte hiru puntuak batzerik izan; hala ere, «oraindik seigarren gara, borrokatzeko aukerarekin; eta, beraz, gure egoerari eutsi behar diogu aurrera egiteko».

Getxo taldea —saikapen nagusian azkenaurrena dena—, aldiz, pozik geratu zen emaitzarekin, nahiz eta garaipenik ez erdietsi. Honenbestez, eta berdinketa honen ostean, Tolosa, lehenik eta behin, «mantentzeko beharrezkoak diren 50 puntuen bila» joango da eta, hortik aurrera, «ahalik eta saikapen onena» lortzea izango dute helburu.

Puntu bakarra lortu arren, urdinak «betiko erara bueltatu dira»

Getxoren aurkakoan hutsna amaitu zuten Berazubín; hala, seigarren dira urdinak saikapen nagusian, 42 punturekin



Tolosa, Berazubín jokatzeko, artxiboko irudi batean. IMANOL GARCIA



JOSE M. LULUAGA
TOLOSAKO ENTRENATZAILEA

«Arenasen aurka betiko jokoa berreskuratu dugu eta, beti bezala, hiru puntuen bila irtengo gara zelaia»

«Hiru puntuen bila»

Datorren asteburuan, berriz, Arenas taldeko zelaira bidaiatuko dute tolosarrak, bizkaitarrak puntu bakarrera dituztelarik. Azken emaitza txarrek inamaitzeko parada izango dute, bada, Luluagaren mutilek. «Norgehiagoka guztietan ateratzen gara irabaztera, baina oraingoan goran mantentzeko ezinbestekoa ditugu hiru puntuen horiek». Eta arrazoi falta ez du; izan ere, taula erdiko lehia oso parekatua dago Hirugarren Mailan.

SASKIBALOA ▶

Nagusitasun osoz, Aralarren garaipen garrantzitsua

La Salle taldearen aurka irabazi zuten Donostian, 50 eta 85eko emaitzarekin

ERREDAKZIOA

Pasa den asteburuan, maila mantentzeko berebiziko garrantzia zuen partida batean, «erraz» nagusitu ziren tolosarrak Donostian, La Salle taldearen aurkakoan. Azken emaitza 50 eta 85ekoa izan zen; markagailuak «fideltasunez islatzen» du 40 minutuetan zehar jazotakoa. Izan ere, uneoro izan zen Aralar saskibaloia taldea aurretik (partzialak: 18-22; 32-42; 45-70; 50-85), eta partida bikaina jokatu zuen. Orain seigarren dira saikapen orokorrean, 13 puntu dituztela. Maila mantentzea gertu dute tolosarrak, nahiz eta atzeko taldeak puntu gutxira diren.

Datorren asteburuan, berriz, hitzordu «berezia eta zaila» dute. Saikapenean hirugarren diren Ventanas Leon taldeak bisitatuko du, hain zuzen ere, Usabal kiroldegia.

Harrobiari begira, bestalde, kadeteek Ordiziaren aurka irabazi egin dute, 67-55. Infantiletan, aldiz, denetik egon zen: lehen taldeak atsendaldia izan zuen artean asteburuko porrota infantilen bigarren taldearentzat izan zen, Ordiziaren aurka.

TOLOSA ▶ 0

GETXO ▶ 0

Tolosa. Santamaria; Iban; Unai; Ion; Pablo; Romero; Crespo (Ilunbe); Aierbe; Blanco (Aiert); Orue; Ekaitz (Jauregi).

Getxo. Eloy; David (Javi Garcia); Iturri; Dani Alonso; Agirre; Quintano; Andoni; Jagoba; Sangroniz (Cepeda); Eneko; Urren (Jonio).

Epaileak. Suberbiola aritu zen epaile lanetan. Txartel horia ateratzen Tolosako Pablari, Romerori, Orueri eta Jauregiri, eta Getxo taldeko Jagobari.

Besteriak. Berazubi futbol zelaian jokatu zuten norgehiagoka; ikusle gutxi bildu zen bertara.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- beheak
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-maila: ennio@inmoennio.com
www.inmoennio.com

Tolosa. Erdialdean eraikuntza berriko etxebizitzak. 3 eta 4 logeekin, terrazak. Sukalde ekipatuak. Garajeekin.

Tolosaldea. Marban dagoen taberna-jatetxea alokairuan. Informazio pertsonala.

Alegia. Taberna alokairuan. Informazio pertsonala.

Alegia. 2 logela eta 2 bainugela. Trastelekua. 40 m²-ko terraza.

Estreinatzeko, guztiz berritua izan ondoren.

Alkiza. Eraikuntza berriko etxe bifamiliarra salgai. 4 solairu. Bista oso onak.

Amezketak. Etxe atxikia salgai.

Belautza. Eraikuntza berriko etxe bifamiliarra. 462.780 euro.

Asteasu. 250 m²-ko etxe bifamiliarra, eraikuntza berrikoa!

Bidanía. Eraikuntza nahiko berriko

etxe bifamiliarra salgai, oso egoera ona.

Hernalde. Etxe bifamiliarrak ederra salmantan. Eraikuntza nahiko berria.

Ibarra. Etxe adosatua salmantan.

Oso egoera onean.

Ibarra. Garaje itxi eta irekiak salgai.

Ibarra. Etxebizitza eta lokala, dena bat. Profesionalentzat egokia.

Estreinatzeko guztiz berritua izan ondoren.

Ibarra. 2 logela, egongela, sukaldia, bainugela. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin.

Bizitzera sartzeko moduan. 210.355 euro.

Ibarra. Euskalerría kalea. Oso egoera onean. Hiru logela, egongela, sukaldia eta bainugela.

Ibarra. Euskalerría kalea. Oso egoera onean. Hiru logela, egongela, sukaldia eta bainugela.

Irura. Oso berezia. Eraikuntza nahiko berria. 80 m². Bi logela, egongela-

sukaldia tximiniarekin, bainugela. Trastelekuarekin.

Gabiria. Paraje ederrean, eraikuntza berriko etxe bifamiliarra.

Legorreta. Eraikuntza nahiko berria.

2 logela eta 2 bainugela. Berokuntza eta trastelekuarekin.

Ordizia. 2 logelako etxebizitza salmantan, 189.320 euro.

Tolosa. Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai. 168.285 eurotik aurrera.

Tolosa. Belate. 3 logela, sukalde-egongela, bainugela.

264.450 euro.

Tolosa. Foruen etorbidean guztiz berritutako etxebizitza salgai. Ikusteko modukoa!

Tolosa. Zezen-plazan. 87 m²ko etxebizitza berritzeko

igogailuarekin.

Tolosa. Berazubi. 3 logela,

egongela, sukaldia, bainugela. Guztiz kanpoaldera.

Tolosa. San Frantzisko ibilbidean 120 m²ko eraikuntza berriko etxebizitza salgai.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.

Tolosa. Pablo Gorosabel. 40 m²ko bulegoa alokairuan.

Tolosa. Araba etorbidea. Garajea alokairuan.

Tolosa. Usabal. 2.000 m²-ko pabilioi industriala alokairuan.

Tolosa. Guadalupe. Pabilioia, 228 m² beheko aldean eta 148 m² goikaldean. Prezio interesgarria!

Zizurkil. Eraikuntza berriko 640 m²-ko pabilioia. 9 metrotako altuera. Kamioientzako bi sarrera, bulegoak, komunak,

aparkalekuarekin...

JUDO ▶

Tolosako zortzi judoek irabazi dituzte dominak

Junior mailako Espainia Iparraldeko Txapelketan eta Gipuzkoako Infantilean aritu dira borrokan



Tolosako judo taldekoak entrenamenduan, artxiboko irudi batean. HITZA

ESTI EZEIZA

Zortzi judoka tolosarrek eskuratu dituzte dominak denboraldi honetan. Alde batetik, junior mailako Espainia Iparraldeko Txapelketan, Unai Arcelusek eta Javi Ayalak lehenengo eta bigarren postuak lortu dituzte. Bestetik, Maddi Amiano, Maria Lopez, Nere Karrera, Iñaki Ongay, Iker Garmendia eta Imanol Luque Gipuzkoako infantil mailako finalera sartu dira.

Espainiako Txapelketa. Unai Arcelusek eta Javi Ayalak Espainiako Txapelketan jokatu ahal izango dute, Aragoi (Espainia), Errioxa (Espainia), Nafarroa eta Euskal Autonomia

Erkidegoaren arteko konpetizioan sailkatu ondoren. Unai Arcelus 90 kilokoetan garaile irten zen, denboraldi bikaina egin ondoren. Javi Ayala, berriz, bigarren geratu zen 81 kilokoetan. Honek ere sasoi betea erakutsi du txapelketan zehar.

Gipuzkoko Txapelketa. Oiarzunen jokatu zen Gipuzkoako Infantil Mailako Txapelketa. Aurretiko bi norgehiagoka irabazi ondoren, finalerako sailkatu dira sei tolosarrak. Nesken artean, Maddi Amianok urrezko domina irabazi zuen, 40 kilokoetan. Ippon ikusgarriak egin ondoren, Gipuzkoako Txapelketan atera da hala. Maria Lopez ere garaile atera

da 44 kilokoetan arteko Gipuzkoako Txapelketan. Bestetik, Nere Karrera 52 kilokoetan artean lehiatu zen, eta lehen postua eskuratzeko gutxi falta izan bazitzaion ere, zilarrezko dominarekin geratu zen. Jardunaldian zehar lehiakide oso gogorrrak garaitzea lortu zuen, txapelketa oso ona eginez.

Mutiletan hirugarren postuak izan dira nagusi, hala eskuratu baitituzte parte-hartzaileek. Hain zuzen ere, Iñaki Ongay, 46 kilokoetan, akats txiki batzuk egin zituen, eta ez zen finalerako sailkatu. Iker Garmendia eta Imanol Luque, bestalde, 50 kilokoetan lehiatu ziren. Biek ere, gogor borrokatu ondoren, zilarrezko domina lortu zuten.

KIROLA ▶



Hegoalde, Mostolesen aurka, aurreko partidutik. HITZA

Emaitza kaskarra Hegoaldekoentzat

5-0 galdu zuten Tolosakoek larunbatean, Valentzia taldearen aurkako partiduan

E. EZEIZA

Asteburu txarra izan dute oraingoan Hegoaldeko neskek. Valentziaren aurka 5-0 galdu ondoren, sailkapeneko 8. postuan aurkitzen dira tolosarrak. Valentziakoak, berriz, azken hamar jardunaldietako bolada txarrarekin amaitzea lortu zuten. Garaipen honen ondoren, Emakumezkoen Espainiako Ohorezko mailan jarraitzeko aukera handiagoa baitute. Sailkapeneko azken postuan aurkitzen dira, eta mailaz jaisteko probabilitate handiak dituzte.

Emaitzak erakusten duen bezala, Valentziarena izan zen nagusitasuna partiduan osoan. Bigarren minuturako sartu zuen Aliciak lehenengo gola, eta defentsa gogorra eginez, baloiaren irteera oztopatzea lortu zuten hasieratik.

21. jardunaldiko emaitzen ondoren, Futsi Navalcarnero dago sailkapeneko lehen pos-

VALENTZIA ▶ 5
HEGOALDE ▶ 0

Valentzia FFS. Marta Jimenez; Alicia; Cristina; Maria; Patricia.

Hegoalde-Tolosa. Nerea Arana; Isa Barrio; Itziar Aldezabal; Vicky Delgado; Maider Lopez.

Golak. 1-0: Aliciak (2m.); 2-0: Maiderrek, bere atean (7m.); 3-0: Sheilak (16m); 4-0: Aliciak (27m); 5-0: Ana Costak (28m).

tuan. Ondoren, Tecnocasa Mostolesek eta UCAM Mur-tziak jarraitzen diote.

Hurrengo jardunaldia hilaren 26an jokatu dute Hegoaldekoek, Usabalen. Preconte Teide taldea izango dute aurkari. Hauek sailkapeneko seigarren postuan daude. Tolosakoekiko bost puntuko aldearekin.

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

GUTUN@K ▶

'Ttotto',
lortuko diagu

Eta horretan ari gaituk, *Ttotto*, eta zinez lortuko diagu. Errepresioa besterik ez gaituk ezagutzen ari egunotan, bi estatuek dakiten hizkuntza bakarra dela zirudik, hire erahilketaren ardura duten haiek guztiak temati jarraitzen ditelak, herri honen askatasunaren aldeko jardunean lanean etenik gabe ari garen gizon eta emakumeon aurkako jazarpen lotsagabea egiten, arduradun politikoak bahitzen eta kartzelarazten, euskal presoaren aurkako dispersio politika arazoetan, haiek heriotzara kondenatuz.

Ai ama, eta PNV eta Ertzaintza, a zer nolako lan polita egiten ikusi dizkiagun egunotan,

hamaika ikusteko jaiok omen gaituk eta Santurtzin eta Portugaletan ikusitakoak argibide gehiegi ematen dizkik.

Guk jarraituko diagu esaten Ertzaintza hau ez dela herriarena, beste herri baten interesak defendatzen dituelako gure herriaren interesen gainetik, Auzitegi Nazionalaren agindu guztiak txintxo-txintxo eta espainol hizkuntza garbian betetzen dituela. Benetan Ertzaintza eta PNVren argudioak azken asteetako gertaeren gainean argigarriak dituk zertan dabilzan garbi adierazteko: Espainiako konpainia baten sukurtsalak euskal herriaren, horixe direla, ez besterik. Euskal herritarrek eta bere eskubideak bost axola, negozioa tartean dagoenean.

Guk, berriz, argi eta garbi jarraituko diagu. Errepresioaren

aurrean gure alternatiba konponbidea izango duk eta horretarako deitu genian greba martxoaren 9an —hire urtebetetzearen atarian—, hainbeste errepresio eta hainbeste jazarpen eta oztoporen aurrean, herri honek benetako konponbidea behar duela adierazteko, eta uste diagu euskal gizarteak mezua ulertu zuela baita Grande Marlasa jaunak ere. Horregatik, astelehenerako deitu zian Arnaldo Otegi deklaratzera beste hainbat ardura-dun politikorekin batera. Grebaren arrakastaren seinale. Porrot egin izan bazian grebak ez zian zigorrik eman beharrik izango. Estatu arrazoiak omen. Hauek dena kartzelarekin eta isunekin konpontzen ditelak. Ez dituk jabetzen dabilen herribat garelara, ez garelara geldituko eta Argalak bere garaian esan

zuen oso gure egin geniala, antolakuntza eta borrokaren bitartez euskaldunok historikoki jakin izan diagula gauzak bere tokian jartzen.

Ttotto, hire heriotza gertatu huen unean esan genian gauza bera esango diagu oraingotan ere, ezker abertzaleak ez duela etenik izango herri honi dagozkion eskubideak aitoritzen ez zaizkion bitartean, hitza eta erabakia euskal herritarren arma izaten ez den bitartean ez diogula lana egiteari utziko.

Eta apirilaren 1ean Bilboko kaleak jendez gainezka beteko dizkiagu hori bera aldarrikatzeko. PNVk dagoeneko esan dik ez dela joango, argigarria benetan.

Agur eta ohore, *Ttotto*, jarraituko diagu...

NEKANE TXAPARTEGI ▶ ASTEASU

LARRAUL ▶

Herri batzarra
ur hornidurari
eta museoari
buruz

Larunbaterako
antolatu dute,
arratsaldeko lauretan,
Katillutxulo elkartean

ERREDAKZIOA

Datorren larunbatea, herri batzarra egingo dute Larraulgo Katillutxulo elkartean, 16:00etan. Bi gai zehatz eztabaidatuko dituzte bileran: herriko ur sareko ziklo integrala Gipuzkoako Ur Kontsurtzioaren esku uztea alde batetik, eta bestetik herriko museoaren etorkizuna. Lehenengo gaia lantzeko, Gipuzkoako Ur Kontsurtzioko ordezkarik bat izango da bertan, herritarrek zuzeneko informazioa jaso dezaten. Udalaren etorkizunean garrantzi handia duten gaiak direnez, etxe bakoitzeko ordezkarik bat bileran izatea komeni dela adierazi dute bilerako deitzaileek.

Tokiko Agenda 21 en baitan abenduan egin zen Herri Batzarrean, bi gai hauei lehentasuna eman zieten herritarrek eta biak herri bileren bidez lantzea adostu zen. Eskara horri erantzunez antolatu du Udalak batzarra.

ANOETA ▶

Yoga ikastaroa
antolatu du
Udalak hiru
hilabetetarako

ERREDAKZIOA

Yoga ikastaroa antolatu du Anoetako Udalak apiriletik ekainera bitartean. Klaseak Hozpel, 5 helbideko udal lokalean izango dira, astearen behin. Aukerak ondorengoak izango dira: astelehenean, 18:30etik 20:00etara, asteartean 09:30etik 11:00etara eta asteazkenean 18:30etik 20:00etara. 42,52 eurotan izango da hiruhilabetea, ondorengo murrizpenekin: famili ugaria, %25; Gazte Txartela, %10; eta murrizpen bereziak diru-sarrerara baxuak dituztenentzat. Izena emateko epea hilaren 29a arte, udaletxean.

ZIZURKIL ▶ POLITIKA

IMANOL GARCIA

Jose Luis Geresta *Ttotto*-k omenaldia jaso du azken bi egunotan. Atzo bete ziren zazpi urte hilik agertu zela Oreretako Zabalbide auzoan. Bere buruaz beste egin zuela ondorioztatu zuten ikerketa ofizialek eta epaitegietan kasua artxibatu egin zuten. Familiak eta ezker abertzaleak, ordea, *Ttotto* «erahil» zutela garbi daukate, gorputza aurkitu zuteneko hainbat frogak erakusten dutenez.

Lore eskaintza egin zioten, atzo, Zizurkilgo hilerrian. Igan-dean ere zenbait ekitaldi egin zituzten. Goizean goiz mendi martxa egin zuten Urkamendira eta, bertan, gudariei eskainitako oroigarrian 75 lagun bildu ziren. Omenaldirik onena «garaipena» zela eta «horren bila joan beharra» zegoela adierazi zuten.

Eguerdia aldera, omenaldi ekitaldia burutu zuten 150 lagun inguruk. *Ttotto*-ren koadrilakoez antzerkitxo bat egin zuten bertsoak abestuz eta harria jasoz, oso gustuko zuten herri kirola. Ander Geresta presoaren —*Ttotto*-ren iloba— bertso bat ere abestu zuten ekitaldian. Hitza hartu zutenek egun «bizi dugun ilusio unea» aipatu zuten eta *Ttotto* «hil zuteneko» garaiekin alderatu zu-

Jose Luis Geresta
'Ttotto'-ri omenaldia
egin diote herrikideek

Azken bi egunetan zizurkildarra gogoratu dute; «bizi ditugun une garrantzitsuak» ere aipatu zituzten hizlariek



Omenaldiaren bi une: txalapartarien saioa eta *Ttotto*-ren koadrilakoez egindako harri-jasotze jarduna. HITZA



ten. «Orain zazpi urte kendu zituzten *Ttotto*, Lizarra-Garazi akordioaren garaiak ziren, ilusio garaiak. Gero horiek zapuz-

tu eta urte beltzak pasatu ondoren, ilusio eta itxaropen unek bizitzen ari gara, une garrantzitsuak».

Ekitaldia amaitu ondoren, Zentroan bildu ziren 60 lagun inguru eta bertan bazkaldu zuten.

iragarki laburrak ▶

LANA

Etzeko lanak. Alegian neska bat behar da etzeko lanak egiteko. Interesatuak deitu 943 65 30 34ra.

ESKARIAK

Pisua. Pisua edo apartamendu bila nabil, leihoak iparralderantz dituen, alokairuan. 678 25 05 66.

ALOKERAN

Garajea. Garaje itxia alokatzen da Iruran. Interesatuak deitu 646 48 76 01era.

TOLOSALDEKO
HITZA.INFO

Inkesta. AHTren alde edo aurka zaude? Eman zure iritzia webgunean.

BIDEGOIAN ▶

Tutorearen bisita aste honetan KZgunean

Etzi, hilaren 23a, KZguneko tutorearen bisita jasoko dute Bidegoianen. Hain zuzen ere, arratsaldeko lauretatik iluntzeko zortziak arte bertan egongo da.

AMEZKETA ▶

Zuhaitz Eguna gaur San Martinen

Zuhaitz Eguna egingo dute gaurkoan, 11:00etatik aurrera. Amezketako Zumadi eskolakoeak. Udaletxeko ordez-kariak, haurrak eta irakasleak egongo dira bertan. San Martingo atsedenlekuan bilduko dira denak, eta ikasgela bakoitzak zuhaitz espezie bat landatuko du. Horrez gain, zuhaitz mota bakoitzaren aldamenean haren ezau-garriak azalduko dituen txartela ere gehituko diote.

ZIZURKIL ▶

Alaitz Olaizola idazlea Zizurkilgo liburutegian

Gaur, 10:00etan, Alaitz Olaizola idazlea Zizurkilgo liburutegian 4., 5. eta 6. mailakoekin ariko da hitz egiten. Arratsalde partean, aldiz, 15:15ean, hain zuzen, gurasoek eskainitako irakurketa saioak izango dira.

PILOTA ▶

Aurrera-Saiazek bi sari eskuratu ditu Euskadikoan

Aurrera-Saiaz pilota eskolako Euskadiko Kluben arteko Txapelketan emaitza onak lortu ditu aurtien ere. Senior mailako Ruben Zapirainen Beotibarren 22-17ko emaitza lortu zuen Huarde taldearen kontra. Belloso eta Oteiza bikoteak Atarrabian ere irabazi egin zuen, arerioak 8 tantoe-tan utziz. Hilaren 26an Beotibarren bikote hau ikusi ahal izango da, 11:00etan, promozio fasea jokatuko baitute. Lehiakideak nafarrak izango dira. Bestalde, Beotibarren Zazpi-Iturriren aurka aritu ziren senior 2. mailakoak, eta garaipena kasu honetan amezketarrentzat izan zen, 12-22ko emaitzarekin.

AHT ▶

‘Gelditu eta pentsatu! AHT gelditu!’ lelopean, ibilaldia

Apirileko lehen egunetan egingen dute, Aralar parke naturalean barrena



Duela 3 urte ere mendi martxa egin zuten Tolosaldean, aldi berean AHTren informazioa jasoz. HITZA

NEREA URBIZU

Apirilaren 1ean eta 2an Abiadura Handiko Trenaren Aurkako Asanbladak deituta, mendi ibilaldi informatiboa egingo dute. Nafarroako Korridorearen eta Euskal Y-aren arteko lotuneak eragingo lituzkeen kalteak kontuan izango dituzte bertan. Hauxe izango dute leloa: *Gelditu eta pentsatu! AHT-rik ez!*

Ibilaldia ez da eskualdetik igaroko, «baina aurrera eramanez duten AHTak inguruko lurraldeak ukitzeko aukera dagoenez, eta aukera bat egin ala bestea egin Aralar mendizerra kaltetua suertatuko denez, guztion kezka bihurtzen da», AHTren Aurkako Asanbladak adierazitakoaren arabera. Hain

zuzen ere, ibilaldi honetan Lakuntza (Nafarroa), Ataun, Zaldibia eta Ordizia (Gipuzkoa) bi egunetan bisitatu dituzte.

AHTren Aurkako Asanbladak, era berean, Eusko Jaurlaritzari kritika egin eta «Nafarroako korridorearen arteko lotuneari buruz somatzen ari den informazioa eza eta gairen obskurantismoa» salatu dituzte.

«Aralarreko mendietan dauden balore natural anitzak eta kulturalak interes ekonomiko eta sasiaurrerakoi hutsen pro-beturako hondatuko lituzkeen proiektu txikitzaile horren aurka» erantzuna eman nahi diote asteburu horretan. Eta, era berean, elkartzeko topagune bat ere bihurtu nahi dute ibilaldia.

Horrez gain, natur zientzien eta ondare arkeologikoaren azterketan aritzen diren zenbait adituk emanen dituzte trenak «hondatuko» lituzkeen paisaien argibideak eta azalpenak.

Ibilbidea

Ibilaldia larunbatean hasiko da, 10:30ean, Lakuntzan. Egutero sei ordu inguru ibiltzea espero dute antolatzaileek. Arakil bailaran barrena, AHT aurrera aterako balitz, leku kalteuak ikusteko asmoa dute ibilaldia egingo dutenek. Lizarrustin atseden hartuko dute, Aralar mendizerran barna joateko, Gipuzkoako lurraldeetara iritsiz, Agautz mendi inguruan —Ataun aldean—, alegia. La-

IBILALDIA

Ibilaldia apirilaren batean hasiko da, 10:30ean Lakuntzan. Egutero sei ordu ibiltzea espero dute

runbaterako afaria eta lo aldia ere antolatu dute, Ataungo Gabrielenea aterpean. Horregatik, lozakua eramatea gomendatzen dute. Igandean Ataundik hasiko dira ibiltzen, Ordiziaraino joanez. 10:00etan aterako dira herriko udaletxetik. Eraman beharreko gauzen artean lozakua, aldatzeko arropa eta norberak jango duena daude, afaria eta igandeko gosaria kenduta. Gauzak gainean ez eramateko furgoneta bat jarriko dute antolatzaileek.

Alegialdeko alternatiba

F alternatiba edo H2 bezala ezagutzen den AHTren bide posibleak Alegialdean izango luke eragin zuzena. Zuastitik Arakil ibarrera sartuko litzateke. Ondoren, Aralar mendiaren azpira doan 11 kilometrotako tunel bat egingo lukete, Ata bailaratik Baraibarrera jaitsiz, eta Araitz haranera iritsita, berri ere Aralar zuluata eta Azkarate inguruan Bedaioaraino iritsiko litzateke. Ondoren, Tolosaraino iristeko, hainbat tunel eraiki ostean, Amezketa errekan parean, Alegiako udalerriaraino iritsiko litzateke. Hor izango litzateke Euskal Y-aren lotura. «Proiektu hau —H2— aurrera eramanez gero, zuzenean eragina Bedaion, Amezketa, Alegian, Orendainen, Ikaztegiatan, Altzon eta Tolosan izanen luke.

iragarki laburrak ▶

<p>Kale Nagusia, 13 VILLABONA Tel.: 943 69 68 56 mug.:616 93 17 88</p> <p>ETXESAGASTI</p>	<p>Aduna. Bifamiliarra salgai. 150 m2 eta 60 m2-ko garajea. Kalitatezko berrikuntza. Luxuzkoa. <u>Etxesagasti. 943 69 68 56.</u></p> <p>Amezketeta. Etxea abikia salgai. Eraiki berria. Informa zaitez! <u>Etxesagasti. 943 69 68 56.</u></p> <p>Andoain. Eraiki berria den etxebizitza ederra salgai. 3 logela. Garajea itxia. Oso polita. <u>Etxesagasti. 943 69 68 56.</u></p> <p>Ibarra. Egongela, sukalde, 3 logela</p>	<p>eta komunaz osatutako pisu ederra. Ezin hobea. Etxesagasti. <u>943 696 856.</u></p> <p>Legorreta. Altua, igogailuarekin. Egongela, sukalde, 3 logela eta komuna. Berrituko. 33.000.000 ptako prezioa. Etxesagasti. <u>943 696 856.</u></p> <p>Segura, Legorreta, Berrobi eta Albiztur. Egoera oneko baserriak, lursailarekin. Etxesagasti. <u>943 69 68 56.</u></p>	<p>Tolosa. 3 logelako etxebizitza alokairuan. Bankuko bermea. Etxesagasti. 943 69 68 56.</p> <p>Villabona. 90 m2-ko etxebizitza salgai. Egongela, sukalde, 3 logela eta bainugela. Berritua. 41.700.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.</p> <p>Villabona. 59 m2 erabilgarri dituen apartamentu irtirin. Berritua. Gazteentzako aproposa. Etxesagasti. 943 69 68 56.</p>
---	--	--	---

IBARRA ▶

Garaipen
erosoa
Sestaoren
aurka, 10-4Ibartarrak hirugarren
postuan daude EHU
Gasteiz eta EHU
Gipuzkoaren atzetik

ERREDAKZIOA

Partida erraza jokatu zuen larunbatean Ibarra areto futbol taldeak Sestao taldearen aurka. Belabietako kiroldegian. Izan ere, 10-4eko emaitzarekin hartu zituen mendean aurkariak etxeko taldeak. Jose Manuel Tobias Ibarra-oren prentsa arduradunak azaldukoaren arabera, «mailari dagokionez alde nabaria zen bi taldeen artean eta hori azken emaitzan ere ikusi ahal izan zen».

Etxeko taldearen nagusitasunarekin hasi zen partida. Hala, 2. minutuan estreinatu zuten markagailua Ion Ander Karrerak eginiko gol batekin. 1-0koa. Ibarra hainbat eta hainbat aukera izan zituen lehenengo minutuetan, baina 8. minutua iritsi arte ez zuen bigarrena sartu, kasu honetan, Lander Kamioren eskutik. Talde bizkaitarrak partida berdintzea lortu zuen bi gol jarraian sartu ostean, baina atsedendira iritsi aurretik Ion Karrerak eta Unai Labakak gol bana sartu zituzten.

Bigarren zatian ere Ibarra izan zen jaun eta jabe, eta lehenengo sei minututan bi gol egin zituzten, Pradosen eskutik. 6-2 zegoen une horretan markagailua. Sestaokoek ez zuten etsi, eta 7. minutuan 3. gola egin zuten. Zaleak talde ibartarra gogor animatzen hasi ziren eta ondorioak egitian ikusi ziren, Unai Labakaren eskutik hiru gol egin baitzituzten. Minutu bat baino ez zen geratzen partidaren amaierarako eta talde bisitariak jokaldi ere baten bidez laugarren gola egin ahal izan zuten. Azken gola, ordea, Ibarra-oren Ion Ander Karrerak egin zuen. 10-4ko emaitzarekin amaitu zen partida. Aipatzekoa da epaileen lana «denboraldi honetan jokatuak onena» izan zela.

Partida erosoa, beraz, ibartarrentzat, eta lortutako puntuetan hirugarren postua lortzea lortu dute; haien aurretik Deportivo Alaves EHU Araba eta EHU Gipuzkoa taldeak ditu.

URREZKO AIZKOLARIEN TXAPELKETA ▶

Rekondok eta Otañok
4. kanporaketarako
txartela lortu duteLeitzarrak eta ibartarrak Asteasun izango dute hurrengoa,
Etxebesteren eta Txapartegiren aurka, hurrenez hurren

IÑIGO TERRADILLOS

Urrezko Aizkolarien Txapelketan beste kanporaketa batzuk izan dira asteburuan, eta bertan aritu diren Jon Rekondo leitzarrak eta Unai Otaño ibartarrak aurrera egiteko txartela lortu dute.

Lehenak irabaztea, eta Barberena, bere aurkaria, txapelketatik at uztea izan zen asteburuko eguzteko handiena. «Oso gustura nago; izan ere, nik ere ez nuen pentsatzen irabaziko nuenik. Barberena bezalako aizkolaria bat mendean hartzea oso handia izan da niretzat», azaldu du leitzarrak. Lehen hiru probetan izan zen nagusi Rekondo, zutikakoan, erloju kontrakoan eta 60 ontzakoan. Saio luzean, berriz, Beruetekoa azkarragoa izan zen; baina, hala ere, orokorrean Rekondok egin zuen denborarik onena. Hurrengo larunbatean, Asteasun, Etxebesteren aurka egin beharko du leitzarrak; «lan motzean bereziki oso ondo aritzen da, eta zaila



Jon Rekondo. JAIONE ASTIBIA

izango da irabaztea; baina saiatuko naiz ahalik eta lan txukunena egiten». Bakion larunbatean jokatu zen kanporaketa, bestalde, Mugertzak ere lortu zuen txapelketan aurrera egiteko txartela Zubiaga garaitu ostean.

Unai Otaño, berriz, Legorretan izan zuen Patxi Midegiaren aurkako kanporaketa herenegun. Zubietaoko pasaden astean Ataunen lan bikaina egin bazuen ere, ezin izan zuen Ibarra-ko aizkolaria mendean hartu. Hain zuzen ere, lan laburretan izan zen azkarrena Midegia, baina luzean Otaño hartu zion aurrea, eta orokorrean denbora hobea lortu zuen ibartarrak. «Zutikakoan alde handiegia aterako ote zidan beldur nintzen, baina azkenean ez zidan hainbeste atera; ondoren, luzean buelta eman nion, 3 minutu baino gehiago atera bainizkion», azaldu du Otaño. Bestalde, Legorretako saioan Jesus Mari Lasak ere lortu zuen hurrengo kanporaketarako txartela Erdozia mendean hartu eta gero.

Rekondok bezala, larunbatean, Asteasun, jokatu du hurrengo kanporaketa Otaño Txapartegiren aurka; «lehen mailako aizkolaria da, eta oso zaila izango da irabaztea; baina ahal dudana egingo dut».

LIZARTZA ▶ HEZKUNTZA



XVII. Eskolaren Astea abiarazi dute

I. Terradillos ▶ Atzo ekin zioten Lizartzako XVII. Eskolaren Asteari. Eguerdian irakurketa, sukaldaritza eta apaingarrien tailerrak izan zituzten ikasleek —argazkian, ikasleak jakiak prestatzen—, eta arratsaldean gurasoek Puntu Txapel-

ketan hartu zuten parte. Gaur, 19:00etan, jaialdia izango dute, eta gaztetxoek zein gurasoek hartuko dute parte; eta bihar, berriz, 14:30ean bizikleta marxa izango dute, eta 19:30ean afari-merienda frontoian. I. TERRADILLOS

LEABURU ▶

Larresoroko
lagunekin
sagardotegia

Leaburu-Txaramako Udalak, urtero bezala, bazkaria antolatzen du Larresoroko herritarrekin. Hilaren 26an izango da Asteasuko Sarasola sagardotegian. Izena emateko azken eguna hilaren 21a izango da, eta udal bulegoetako telefono zenbakira, 943 67 59 31ra, deitu beharko da. Egun horretan ekitaldiak Txaramako plazan hasiko dira, hamaiketako hartuz trikitilariekin. 12:30ean, Kultur eta Osasun gunea bisitatuko dute eta, ondoren, bazkarian elkartuko dira.

IBARRA ▶

Matrikulazio
kanpaina
Haur Eskolan

0 eta 2 urte arteko Haur Eskolako matrikulazio epea zabalik dago Uzturpe Ikastolan, hilaren amaiera bitarte.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))
Osasuna.

▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

▶ Asteasu. Medikua: 692423

▶ Baliarrain. Medikua: 889003

▶ Berastegi-Elduain. Medikua:

683361

▶ Bidegoian. Medikua: 681134

▶ Ibarraldea. Osasun ebea:

672411

▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329

▶ Irura. Osasun zentroa: 690720

▶ Leizta. Osasun z.: 948 510800

▶ Orendain. Medikua: 655595

▶ Oresa. Medikua: 682228

▶ Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leizta): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurrumendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

LEITZA ▶ GIZARTEA

Argentinan, 101 urteko leitzarra

Eztebenetarra da bera eta Ayacucho
Euskal Zentroan omena egin diote

JAIONE ASTIBIA

Oraingoan Ameriketatik dator notizia, hara. Euskal kulturaz eta diasporaz jarduten duen euskalkultura.com orrialdeak argitaratu zuen berria ostiralean: «Mikaela Alduntzin, 101 urteko leitzarra, Ayacucho Euskal Etxeko Ohorezko Bazkide izendatuko dute gaur arratsaldean». Haren sustraiak bilatu ditu HIRZAK, han-hemen galdezka.

Mikaela Alduntzin Eztebeneko bordakoen ahaidea da: Migel Alduntzinen eta Maria Paz Sukuntzaren alaba. Aita, Uruguain jaiotakoa izanagatik euskal jatorrikoa zena, 20 urtetan Euskal Herrira itzuli omen zen eta hemen bere emazte izanen zen Maria Paz ezagutu Leitzan. Eta Mikaela jaio eta honek lau hilabete zituela Ameriketara joan omen ziren, oraingoan Argentinara.

Hain zuzen ere, Mikaelaren amaren sustraiak aurkitu ditu Mari Karmen Sukuntza leizarrak: «Iaz gure ahaide batek eskutitza igorri zigun handik, nola emakume batek 100 urte bete zituen hilbeltzaren 27an, zuela 5 urte alargundu zena, eta nola abizenagatik eta familiarik modura tratatzen zuten. Eta orain, berria jakitean, gaiari eutsi diot», argitu dio HIRZARI.



Mikaela Alduntzin, 101 urte bete zituen egunean. HITZA

Horrela, berak zioenez, «eliazako artxiobotan aztarrenak jarraituz Maria Pazen aitona, Juan Bautista, gure Eztebeneko aitona Justoren osaba zen». Horra, beraz, Eztebeneko kastaren adarra baieztatua.

Ostiralean Ayacucho Euskal Odola euskal-etxeko ohorezko kide izendatu zuten Mikaela Sukuntza sortzez leizarrak, «euskal kulturaz eta euskaldun izateaz arto bizitzegatik eta bere ondorengoei ere horrela transmitzeagatik». Bere aldetik, gerraren ihesi bere hartara joandako Joakin Zabaleta euskal herritarrarekin ezkondu zen 1927an eta izan zituzten 7 seme-alabak, hauengandik sortu ziren 14 bilobak, 28 birbilobak eta, oraingoz, hereniloba bakarra ondolan izan omen zituen «Diasporako amatxik».

LEITZA ▶ KULTURA



Manuel Lasarteren bertso kantari aritu dira

J. Astibia ▶ Manuel Lasarte: bizitza eta sorkuntza hobeki ezagutzeko aukera izan zuten ostiral iluntzean, izenburu horrekin zabalik dagoen erakusketaren aitzakian, antolatuta zegoen hitzaldi-kantaldira bildu zirenek: Julian Belokik, Iñaki Zubizarretak eta Iñaki Hernandezek, erakusketaren egileek, emandako argibideak, kontakizunak, azalpenak, balioetsu izan zituzten La-

sarteren bizimoduaz eta bertsoagintzaz jabetzeko. Tartean hizlariak eta entzuleak elkarrekin haren bertso sortak kantatuz aritu ziren: «Manuel Lasarte artista da, bertsoagintzan, bere lanagintzan, eta prosagintzan ere bai. Edozein arlotan esaldi borobilak osatu izan ditu beti, neurtutak, zuzenak. Plaza-gizona izan da eta da, oso-osoa», adierazi zuten. JAIONE ASTIBIA

LEITZA ▶ KIROLA

Herri Krosa antolatzeko laguntza eskatu du Aurrera Kirol Elkarteak

Apirilaren 23an da egitekoa; lagundu nahi dutenek bihar bilera dute

ERREDAKZIOA

Aurrera Kirol Elkarteak herri-krosa antolatuko bada, herritarrei bere antolaketan eskua botatzeko eskarie egin die. Bihar 19:00etarako egin dute

bilera deialdia, elkartearen bitan.

Apirilaren 23an dute egitekoa herri-krosa, 28. edizioa izanen lukeena aurtengoarekin. Baina horren antolaketan kolokan egon daiteke, hain zuzen ere hori antolatzeko behar

adina jende ez omen dago eta. Horrela, lagundu nahi duen orori dei egin die elkarteak, «krosa bideratzeko helburuz» eginen duten aitatutako bilera horretan parte hartzeko.

hitza

txokoa

HITZAren HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

Txartela HITZAren harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

Avalon
osagaiak
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honetekin
TOLOSA
Tel.: 943 67 22 44

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko martxoaren 21a, asteartea ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA



goizez



arratsaldez



beroena

13

hotzena

09



BIHARKO EGURALDIA



goizez



arratsaldez



ELURRA ARALARREN



Guardetxe:



gaur: ez / bihar: ez



Pagomari:



gaur: ez / bihar: ez



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA



(zalantzak argitzeko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Berrobi. Berrobiko eskolako ikasleek *Pausoka* aldizkaria egin behar dute. Horretarako, eskolako argazki zaharrak, eskola garaiko pasadizo interesgarri, kurioso edo zelebrek eskatzen dizkiete herritarrei. Eskolara eraman behar dira.

Leaburu. Hilaren 26rako bazkaria antolatu dute Larresoroko herritarrekin, Asteasuko Sarasola sagardotegian. Izen-ematea, udal bulegoetan (943 67 59 31).

Leitza. Benidormera irteera antolatu du Arkupeak jubilatutako elkarteak, maiatzaren 10etik 24ra bitartean, 460 eurotan. Izen-ematea, elkartearen bertan.

Lizartza. Eskolaren XVII. Astearen baitan, jaialdia izango da, 19:00etan.

Tolosa. Udaberri dantza taldeak erromeria egingo du apirilaren 1ean. Jaiari amaiera emateko afaria antolatu dute, Abastosen. Dagoeneko Kimetz arropa dendan eta Garikano zapata dendan daude salgai txartelak.

Tolosa. Laskorain Ikastolan 2004-05 ikasturtean DBH bukatu zuten ikasleek titulua jaso dezakete ikastolako idazkaritzan, Usabalen.

Tolosa. Kultur Astea Hirukide ikastetxean. Gaur: Nerea Herrarte ipuin kontalaria, *Oilasko ihesa* filma, Xabil maskota, irratsaioa...

Tolosa. Tolosaren 750. urtemugan, herriko historiari hitzaldi emango ditu Juanxo Agirre historialari eta Aranzadiko kideak, Kultur Etxean, martxoaren 23tik ekainaren 8ra, ostegunero, 18:00etatik 19:00etara bitartean. Bihar da izena emateko azken eguna, www.kubxasocial.net edo 902 54 00 40 telefono zenbakian.



Eskolako Agenda 21 hitzarmena Paper Eskolan

TOLOSA ▶ «Garapen jasagarriaren gorabeherak eskoletara ere iritsi dira, eta horretarako gizarte osoak eta hezkuntza sistemak berak ere ahalegina egin behar dute bakearen, justizia eta jasagarritasunaren ideietara hurbiltzeko. Bide horretan, tokiko ekimenak eta Eskolako Agenda 21 baligarriak izango dira ikastetxeko zein herriko ekimenetan parte hartzeko». Eskolako Agenda 21 hitzarmena si-

natu du Paper Eskolak, eta hitz hauekin mintzatu da Paco Cefia zuzendaria aurrera begirako asmoez —argazkian, eskuinean, eskolako bi ikaslerekin eta Tolosako alkate Jokin Bildarratzekin (ezkerrean)—. Zehaztu duenez, ingurumenaren aldeko jarduerak osatu nahi dituzte, eta hainbatetan murgildu dira jada: ingurumen kudeaketa sistema jartzea eta ingurumen IHOBEko adierazle bankuan parte hartzea. HITZA

gurasoei zuzenduta. 19:00etan, Orixe Institutuan.

IKASTAROK

Anoeta-Irura. Anoetako eta Irurako udaletxeek *Oreka emozionala* ikastaroa antolatu dute. Izen-ematea, bi udaletxeetan.

Tolosa. Sexualitatearen inguruko ikastaroa antolatu dute Berdintasunerako eta Gazteria departamenduek 13-17 urte arteko gazteentzat. Maiatzaren 5ean hasi eta ekainaren 2ra bitartean iraungo dute. Informazio gehiago eta izen-ematea, Kultur Etxean.

Tolosa. Gazteentzat komiki ikastaroa antolatu dute Berdintasunerako eta Gazteria departamenduek, Raquel Alzate komikigile sarituarekin. Ostiraletan eskainiko dute, apirilaren 28an hasi eta ekainaren 9ra bitartean. Informazioa eta izen-ematea, Kultur Etxean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.
Tolosa. Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, agenda, Hitzaren errepaso, albisteak, elkarrizketak, disko eskainiak...
18:00-19:00. *Adi guri* irratsaioa, Anoetako Herri Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleek prestatzen duten saioa.
19:00-21:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
21:00-22:00. *Zaharrak berri*, Irulegi irratiak eskainitako saioa, Arrosa Irrati Ekizpuzen Zentroaren eskutik.
22:00-23:00. *Street noise* musika saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan eta iritzien erantzukizunik.

Villabona. Aizkardiren XXXVII. mendi marxa, igandean.

Bi ibilbide izango dira: 42 kilometrotakoa (9 ordu eta erdi inguru) eta 23 kilometrotakoa (5 ordu eta erdi inguru).

Izen-ematea, 649 71 71 82 telefono zenbakian,

19:00etatik 22:00etara, edo martxaren egunean bertan, irteeran.

Zizurkil. Euskararen Astearen barruan, gurasoek eskainitako irakurketa saioa izango da gaur entzungai Pedro Mari Otaño herri ikastetxean, 15:15etik aurrera.

ERAKUSKETAK

Alegia. Jose Luis Albizuren koadroak, Jubilatuen tabernan. Gaur da azken eguna lanak ikusteko.

Leitza. *Manuel Lasarte: bizitza eta sorkuntza.*

Hilaren 26ra arte egongo da ikusgai, udal-etxean.

Tolosa. Dorleta Ortiz de Elgearen pintura erakusketa.

Apirilaren 1a arte, Aranburu Jauregian.

Tolosa. *Poesia movil.* Enrique Zalduaren pintura erakusketa. Apirilaren 22ra arte

izango da ikusgai, Aranburu Jauregian.

Tolosa. *Ni ere pertsona* erakusketa. Aste osoan, Kultur Etxean. Arrazakeriaren Aurkako Astearen barruan, Gipuzkoako SOS Arrazakeriak antolatuta.

Tolosa. Maite Ibasoren oliopinturak eta akuarela lanak, Lanbroa tabernan ikusgai.

HITZALDIAK

Tolosa. *Nola lagundu gure seme-alabei hurrengo ikasketak aukeratzeko.* DBHko 4. mailako

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Clara Antonia (Lizartza).

Zorionak bere seme-alaba, biloba eta birloben partetik. Muxu handi bat.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitzaan Udalteko bulegoa

hitza agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...